



Errotabarria (-a) *etxebizitza*

Aldacrak:

Ahozkoa: Errotabárrri / Errótábárrri



43° 11' 14"

2° 36' 3"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Baserri honen inguruan aurkitzen dugun lehendabiziko aipu dokumentala 1704koa da, Bizkaiko su-erroldetan Sarrian dauden erroten artean *Errotabarria* aurkitzen baitugu. Hortik aurrera, mendeetan zehar izen-forma bera mantendu izan da inongo aldaketarik gabe, eta, horrela, 1967ko Udal-erroldan, *Errotabarri* aurkitzen dugu.

Gaur egun, bizitza bikoa den baserri hau errota izandakoa da, izenak eta inskripzio batek argi uzten duten moduan. Fatxadetako baoak eta materialek ondo baino hobeto islatzen dituzte bertan egindako eraberritzeak. Argi esan genezake fatxadak luziturik eta pintatuta

izango zituela, kontrastea eginenez etxe-kantaletako, atarteko eta leiho bihurtutako atearen harlandu gorrikkarekin. Beste leihoez zurezko dintela dute, beste errota batzuetan ikusten den eran. Zaharragoa den arren, 1827an eta 2000. urtean berriztatu zuten, hasierako obretan harria erabili zutelarik. Atarte ondoko plaka batean honako hau irakur daiteke, mesedetako en ezkutuaren albo banatan: “*ERROTA/ BARRIA/ BARRISTAUBA/ 1827/ GARREN URTIA*”. Kantal batean, berriz, lauburuaren azpian beste honako testu hau ageri zaigu: “*ERROTABARRI / 2000 / BERRI*”.

“...una casa molino conocida con el nombre de Errotabarria...en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz... ocupa una planta solar, incluso un trocito de antusano de cuarenta y ocho estados o sean ciento ochenta y tres metros, se compone su piso bajo de zaguán, cocina, sala de molienda, cuadra y tejavana, el principal de tres dormitorios y saleta, y el resto desban...”

DJE, 4/34 or. (1878)

“...su maquinaria consta de dos piedras de moler, una de ellas de pan y otra de maíz con sus rodetes, ejes toldos pesebres y adherentes. La presa es de piedra, también el cuerpo de antepara...”

DJE, 4/34 or. (1878)

toponimia

Izen gardenak, gardenik bada. Bizkaian antzina bolu hitza erabiltzen zen “errota” esateko eta horregatik errota hitzaz osatutako izenak berriagoak izaten dira. Errota hitza latineko rota hitzetik dator, gaztelaniazko rueda bezala. Bolu hitza ere latinetik zetorren molinum-etik gaztelaniazko molino bezala. Gogoan izan erromatar garaian errotak eskuz edo abereen indarrez mugitzen zirela eta erreka ondokoak berriagoak direla.